

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 15. atala

DATA: 2024/10/04

GUREAN

BERRIRO... BASO ESKOLARA!

Naturak gure eguneroko dinamikan garrantzi handia du. Gure basoa eta animaliak maitatzeaz gain, gelan landutako gaiez gozatzeko ere balio digu. Gainera, Herri Ametsa ikastola, horretarako, ezin hobea da, Uliako baso ederrean bertan baikaude. Hori da gure egunerokoa, gure Ikastolak momentu oro naturan murgilduta egoteko eta gozatzeko aukera ematen digu.

Ikasturte berrian, gure HHko ikasleek baso eskolari eman diote hasiera. Beti bezala, esperientzia zoragarria izan da. Hemendik aurrera, beste aukera ugari izango dituzte.



GURE INGURUAN

IRUGURUTZETAKO MEATEGIAREN BISITA AZALDUA

NOIZ: URRIAK 5
NON: IRUN



Aiako Harriko eta inguruetako meatze ustiategiak erromatarren garaian hasi ziren, baina Irugurutzetan bisita daitezkeen egiturek XX. mendeko meatze-jardunarekin daukate zerikusia, burdina ateratzeko egiten zena. Bisitarako elkargunea Irugurutzetako meatzea dagoen natur ingurunea izango da.

Tarifa: 5,75€
Erreserbak: 943 63 93 53

SAGARRARI ZUKUA ATERA FAMILIAN!

NOIZ: URRIAK 5
NON: ASTIGARRAGA, SAGARDOETXEA

SAGAR MUZTIO ELABORAZIO TAILERRAK
FAMILIAN SAGARDOETXEAN.

Urriko asteburuetan eta azaroko lehen
asteburuan (Urriak 5, 6, 12, 13, 19, 20, 26
eta 27 / Azaroak 1, 2 eta 3).

Ordutegia larunbatetan:

Goizez: 11:00, 12:00, 13:00.

Arratsaldez: 17:00, 18:00.

Ordutegia igandetan/jai egunetan:

Goizez: 11:00, 12:00, 13:00.

